



BERGARA

Udal aldizkaria | 01 zenbakia | 2008ko urtarrila

ELKARTEEN TXOKOA >08

Gure Ametsa elkarte

UDAL ARTXIBOAK SINATUA >09

Aritzetako San Migel

GAZTERIA >15

Gazte Kontseilua osatu nahi dute herriko koadriletako ordezkariekin

BASERRI AUZOAK >18

Berpiztu programa abian Ubera, Angiozar eta Elosun



GAI NAGUSIA >04

**HERRIA PIZTEA
DA UDALAREN
EGITASMO
NAGUSIA**



Zenbaki honetan...

03 EDITORIALA

04 GAI NAGUSIA • Herria piztea da egitasmo nagusia ■



06 HERRITARRAK KAZETARI

06 GALDERAK


07 IRITZIAK ■



08 GURE BERGARA

08 ELKARTEEN TXOKOA • Gure Ametsa elkarte ■

09 UDAL ARTXIBOAK SINATUA • Aritzetako San Migel



10 UDALA

10 PARTE-HARTZEA / Gehigarria /

14 HIRIGINTZA

15 KIROLA/GAZTERIA ■

16 KULTURA

17 GIZARTEA

18 BASERRI AUZOAK

19 UDALBATZARRAK



BERGARAKO UDALA

San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel: 943 77 91 00
Faxa: 943 77 91 63

www.bergara.net

TELEFONO INTERESGARRIAK

Agorrosin	943 77 70 95	Kanposantua	943 76 27 81
Alkatetza	943 77 91 01	Kirolak	943 77 91 67
Angiozarreko liburutegia	943 76 16 19	Kontuhartzaitetza-Hazienda	943 77 91 64
Artxiboa	943 77 91 32	Kultura	943 77 91 58
Enpresa komitea	943 77 91 73	Labegarietako kiroldegia	943 76 56 41
Euskaltegia	943 76 44 53	Liburutegia/Kultura Etxea	943 77 91 62
Euskara	943 77 91 66	Mizpirualde egoitza	943 76 13 68
Gizarte Ongizatea	943 77 91 65	Obrak eta Zerbitzuak/Udal biltegia	943 77 91 52
Hirigintza eta ingurumena	943 77 91 68	Ondare artistikoa/museologia	943 77 91 62
Idazkaritza	943 77 91 00	Osintxuko liburutegia	943 76 23 76
Igerilekuak	943 76 20 51	Udaltzaingoa	943 77 91 06
Informatika	943 77 91 37		



Herritarrekin batera egin nahi dugu lan



AGURNE BARRUSO | BERGARAKO ALKATEA

Ongi etorri Bergarako Udalaren aldizkari berritura. Aldizkariak jadanik baditu 11 zenbaki, baina 12. honek aurrekoengandik desberdina izan nahi du. Desberdina izan behar du gainera. Udal Gobernu bera ere desberdina den neurrian hala behar du bere komunikazio-tresnak. Aldizkari berri honek bi norabideko joan-etorria behar du, funtzionatuko badu. Ez dugu soilik Udalaren informazioa plazaratuko duen aldizkaria kaleratu nahi izan; zuen galderak eta iritziak jaso nahi ditugu eta bestelako informazioa ere plazaratu nahi dugu aldizkari honen bidez. Beraz, ea guztion artean lortzen dugun bergararron aldizkaria izatea eta benetan herritarrei interesatzen zaizkizuen gaietan sakonduko duen tresna izatea.

Sei hilabete eta erdi daromatza gobernu berriak lanean. Orain arte egitea egokitu zaigun lan asko ez da gure proiektuak

“

Diru publikoa ondo gestionatzea eta benetan herriak behar dituen proiektuetan inbertitzea izango da gure erronkarik handiena

”

gauzatzea izan. Aurreko gobernuak hasitako hainbat gestio eta proiektu garatzea egokitu zaigu eta batzuetan gustura (proiektuarekin berarekin bat egiten dugulako) eta besteetan gogoz kontra egin behar izan ditugu hainbat lan. Dena den, 2007 urtea ez dugu soilik gestioan inbertitu; aurrera begirako proiektuak eta egitasmoak lantzen eta planifikatzen ere aritu gara eta laster izango duzue lan horren guztiaren berri.

2008an Udal Gobernu berriak landutako aurrekontuak izango ditugu eskuartean eta hortxe izango dugu geure proiektuekin hasteko aukera. Aukera murrizta bestalde, Udalak inbertsiotarako daukan gaitasuna bera ere murrizta delako. Diru publikoa ondo gestionatzea eta benetan herriak behar dituen proiektuetan inbertitzea izango da gure erronkarik handienetakoa. Honekin batera, ZERegiten dugun bezain garrantzitsua izango da NOLA egiten

dugun eta arreta berezia eskaini nahi diogu alor horri. Herriarekin elkarlanean eraiki nahi dugu etorkizuneko Bergara. Zuekin guztiokin elkarlanean aritu nahi dugu eta horretarako kolaborazio-bide guztiak ireki nahi ditugu. Ez utzi ideia bat mahai gaineratu gabe, etorri Udalera eta plazaratu zuen iritziak eta ideiak.

Erronka handia daukagu aurrean Bergara herri bizia izan dadin eta etorkizun oparoa izango duen herria eraiki nahi badugu. Guztia dago egiteko eta elkarrekin egin behar dugu. Horixe da aldizkari honen lehenengo zerbakiaren plazaratu nahi dizuegun ideiarik garrantzitsuenak: AUZOLANA da Euskal Herria ezaugarritu duen jardunetako bat; Udal Gobernuak auzolan hori bultzatu nahi du eta aldizkari honek ere horretarako tresna izan nahi du. Gozatu dezazula irakurtzen eta aurki dezazula interesatzen zaizun informazioa bertan.

ANALISIA

Erronka aroari ilusioz ekin dio Bergarako Udalak. Asmoak onak dira, lana ezinbestekoa eta zortea beharrezkoa. Estiloa, berriz, oso bestelakoa

Begarako Udalaren estilo berriaren ondorioa da eskuetan duzun aldizkaria. Estiloa askotan izaten da azaleko ezaugarria, sakontasunik gabekoa, hutsa, baina, oraingoan ez dirudi estiloak ezaugarri horiek dituenik. Garai berriak datoz Bergarako Udal Gobernu eta agintari berriek erronkaz bete-

rik egin nahi diete aurre. Lan egiteko prest, herritarrei entzuteko gogoz eta haiekin elkarlanean proiektuak abiarazteko irrikaz. Asmoak onak dira eta aldizkari berritu honetan datozen albisteak dira horren lekuko. Asmoak, ordea, ez dira nahikoa izaten, erronkei aurre egiteko lana behar izaten da eta zortea.

Azken hori faktore inportantea izaten da eta komeni da aipatzea. Komunikazioan ere itxura berria eman nahi du Udalak, baina ez bakarrik itxura, egiten dutena herritarrekin konpartitu nahi dutelako eta herritarrek euren iritziak plazaratzeko aukera izango dutelako.

Zorte on.



HERRIA PIZTEA DA EGITASMO NAGUSIA



San Antonio auzoan eginiko artisau azoka.

Begarako Udala kezkatuta dago herriko kaleetan bizitarik ez dagoelako. Egoera hori irauli nahi du Udal Gobernu berriak eta horretarako egitasmoak abian jarri nahi ditu. Helburua da aisialdi eskaintza zabaltzea eta Bedelkar merkatarien elkartearekin batera herriko komertzioa sustatzea. Oraindik asmoak besterik ez dira, baina aurrean onartuko dituzten aurrekontuetan partida bereziak bideratuko dituzte.

Plan zehatzik ez du Bergarako Udalak baina agintaldi berriko bidai orriko helburu nagusia izango da herriko bizitza sustatzeko ekimenak abian jartzea. Horretarako herritarren kolaborazioa ezinbestekoa izan beharko dela uste du Udalak eta herriko elkarteekin batera ekintza konkretuak jarriko ditu abian. Bergararren kontsumo joerak eta aisialdi beharrak herrian bertan asetzeko ekimenak proposatu nahi ditu.

HERRIKO ELKARTEAK

Kaleei bizitza emateko bi bidetik lan egitea aurreikusten da. Batetik, Udaletik bertatik herriko kaleetara dinamika ekar dezaketen ekimenak bultzatu eta programatu nahi ditu, eta bestetik, herrian zerbait antolatu nahi duen talde orori laguntza eskaintzeko asmoa du. Herriko kultura elkarteak, gazte taldeak, elkarte gastronomikoak, kirol taldeak, guraso elkarteak, ikasleak, merkataria, tabernariak eta herriarekin identifikatuta sentitzen den edonor mobilizatu nahi du Udalak.

BEDELKAR

Dagoeneko ekimen konkretuak gauzatzen ari dira. Esate baterako, San

Agintaldi berriko **bidai orriko helburu nagusia izango da herriko bizitza sustatzea**. Horretarako herritarren kolaborazioa ezinbestekoa izango da. izan ere, herriko elkarteekin batera ekintza konkretuak jarriko dira abian

Pedro kaleko urbanizazio berria egingo du Bedelkar elkartearekin batera eta merkataritza sustatzeko PERCO izeneko programaren barruan kokatu du Udalak. Programa horren baitan jasotako dirulaguntzaren arabera izango da bideragarri proiektua.

Domingo de Iralako lanak ere antzera bideratu dituzte, baita Zabalotegi aretoa konpontzeko lanak ere. Formatu txikiko eta ertaineko eskaintza kulturala programatuko dute irailetik aurrera Zabalotegin. Larunbatetako merkaturia ere lekuz aldatzeko aukera aztertzen ari da Udala. Horiek dira orain arteko egitasmo kon-

kreituak, baina, Udaletik adierazi dutenez: "Hasiera besterik ez da".

GABONETAN ZENBAIT BERRIKUNTZA

Gabon egunetan ere kaleak girotzeko ahalegina egin da. Horren haritik, artisau azoka jartzeko proposamena jaso zuenean bere egin zuen eskaria Udalak. Kultura sailetik adierazi digutenez: "Hiru helburu izan ditu Gabonetako artisau azokak. Artisauei produktuak saltzeko aukera eskaini, begarrei herrian Gabonetako erosketak egiteko aukera eman eta Gabonetako giroa kaleetara gerturatu". Eta emaitzarekin oso gustura dago Udal Gobernuak. Kaleetan giroa izan delako Gabon egunetan eta herritarrek kaleetan ibili direlako.

LABEGARAIETAKO JOLAS-PARKEA

Gainera, aurrean Labegaraietako jolasparkea ere aldatu egin du Udalak eta eskaintza berria egiteaz gainera, Kultura batzorde buruak uste du erosoagoa izan dela erabiltzaileentzat. Haurren zein helduen aisialdirako eskaintza areagotzea izan da Gabonetako asmorik garrantzitsuena Udalarentzat.





INICIATIVAS CONCRETAS

En Navidades se han puesto en marcha distintas propuestas culturales, como la ya tradicional feria de artesanía organizada por la sociedad Gure Ametsa. A su vez, y en colaboración con la Asociación de Comerciantes Bedelkar, se van a iniciar las obras de reurbanización de la calle San Pedro. Y en breve se pretende cambiar de ubicación el mercado de los sábados. Respecto a las obras de la calle Domingo de Irala también se han tratado con la Asociación Bedelkar. En cuanto a Zabalotegi aretoa, la inauguración será en septiembre y se pretende que su oferta cultural sea de pequeño y mediano formato.

Todo ello, para mejorar la oferta cultural existente y para impulsar el comercio local.

HERRITARRAK KEZKATUTA

Herritarrak kezkatuta daudelako jarri ditu abian asmo eta ekimen horiek guztiak Bergarako Udalak. Herritarren artean asko zabaldu da azken urteetan Bergaran ezer ez dagoen pertzepzioa. Zenbait kultura elkarteko ordezkariak, kirol elkarteetakoek, gaztetxeko ordezkariak edo gastronomía elkarteetakoek behin eta berriro adierazi diete Udal ordezkariari Bergarako kaleetan bizitza pizteko plangintza bat jarri behar dela abian. Herriko giroak proposamen berriak behar dituela eta eskaera horretan oinarrituta abiatu da Udalaren ahalegina.

2008an onartuko dituzten aurrekontuetan inbertsio berezia eskainiko dio Gobernu berriak gai horri. Udal batzorde informatiboetan lanean dihardute eta herritar guztien edo gehien iritziak jaso nahi ditu Udalak. Hain justu ere, batzorde horietan parte hartzea dei egiten diete herritarrei. Batzordeetan proposamenak egin ahal izango dituzte herritarrek eta proposak izanez gero, Udal Gobernuak prest dago gauzatzeko. Udaleko ateak irekiko dituzte, arlokako batzordeak sortuz eta hainbat esparru aztertuz. Udalaren hel-



Gure Ametsa elkarteak antolatutako Napar Feria San Antonio auzoan, 2007ko abenduan.

buru nagusia da herritarrei bideak erraztea Udal erabakietan parte har dezaten.

GAZTETXOAK EGOTEN ESPAZIOAK SORTU

Gure herriko gaztetxoen gurasoak ere kezkatuta daude eta Udal aldizkarian jaso da horren gaineko iritzi artikulu bat. Gurasoek euren seme alaben aisialdirako espazioak eskatzen dituzte, irekiak zein estaliak. Kanean gustura egon daitezten, jolasteko leku proposak izan ditzaten eta 12 urtetik 15 urtera bitarteko adin tar- teko neska mutikoentzat proposak izango diren egitasmoak izan ditzaten. Udalaren asmoa da kezka horiek aztertzea eta aukera berriak proposatzea. Azken finean, Bergarako Udalak herria biziberritzeko egitasmoak gauzatu nahi ditu.

EL AYUNTAMIENTO PONDRÁ EN MARCHA INICIATIVAS PARA IMPULSAR EL COMERCIO LOCAL Y LA VIDA CULTURAL Y SOCIAL DE BERGARA

La Corporación Municipal está muy preocupada por la falta de vida comercial y de ambiente en las calles de la localidad. La percepción de los bergarres/as de que al pueblo le falta vida está muy extendida, y por ello el nuevo Gobierno Municipal está intentando impulsar pequeños proyectos e iniciativas. El Ayuntamiento cree que será necesaria la participación de los distintos grupos de jóvenes, sociedades gastronómicas, agrupaciones culturales, asociaciones de padres y madres, ikastolas, escuelas, comerciantes y todo los bergarres/as interesados en darle una nueva vida a la localidad. Lo que se pretende es que los vecinos de Bergara no tengan que salir fuera del pueblo para llenar su tiempo de ocio.



GALDERAK

Zergatik dago Labegaraietako tenis pista estalita?

I. A.

Tenis pista estaltzeko xedea zen tenis pista ordu gehiagotan erabiltzea. Eta helburua lortu da: Alokairu ordu gehiago daude, ikastaroetako saioak ez dira eteten eguraldi txarragatik, uda kanpainen eskola ikasleek ez dituzte saiorik eten eguraldiagatik. Horrez gain, beste ekin-tza puntaletarako baliagarri den baliabidea da: KMKak, erakusketak, jai txikiak, eta beste.

Hala ere, gure mugak eza-gutzen ditugu. Zapaia baxua da eta bola altuek zapaia jotzen dute, eguzkiak asko jotzen duenean barru-kanpo artean argi aldaketa handia dago. Argi fokoa berriak ipini dira eta berriro norabidetu egin dira hobeto argitzeko asmoz.

Labegaraietako tenis pista ez du lehiaketarako balio, lehen-

tasuna irakaskuntza eta erre-
kreatzioari eman diogu. Horre-
tarako, baliagarria da oso. Bes-
tela, 2007ko orduak ikustea bai-
no ez dago estalketarekin
asmatu dugula ikusteko. Azke-
nik, eta bergarar tenis zale finen-
tzat gogoratu Bergarako kirol
abonua bere baitan Deba-
goieneko abonua zerbiztuak
barneratuzten dituela.

Unai Asurmendi /
Kirol teknikaria

**Las calles están sucias. ¿Qué pretende hacer el Ayuntamiento al respecto?**

Z.M.

Es cierto que hemos recibi-
do cantidad de quejas con res-
pecto a la limpieza de las calles.
Así las cosas, el Gobierno Muni-
cipal cree que lo más acertado
será realizar una encuesta para
poder analizar el punto de dis-
conformidad y los puntos de

mayor descontento. Nuestra
intención es realizar una encues-
ta que será repartida en los
buzones de las viviendas, y reci-
bir las respuestas en el buzón
que existe en el Ayuntamiento,
analizar las mismas e intentar
dar solución hablando con la
empresa contratada para la rea-
lización de la limpieza diaria de
las calles.

Enara Minguez / Zinegotzia

**Zein da tranbiaren proiektuaren egungo egoera?**

E. J.

Udal Gobernuak Eusko Jaur-
laritzak aurkeztutako hasierako
proiektuari egindako alegazio-
en erantzunaren zain dago. Uda-
lak berak eta hainbat herritar-



taldek aurkeztu genituen ale-
gazioak proiektua jendaurrean
egon zenean eta oraindik ez
dugu alegazioen inguruko eran-
tzunik jasotako. Udalean bertan bile-
rak izan ditugu trazatuarekin
kezkatuta dauden herritarrekin
eta baita alegazioak aurkeztu
zituztenekin ere. Gure propo-
samena herritarrekin batera joa-
tea izan da eta hori izango da
Udal Gobernuak mantenduko
duen jarrera. Bestalde, komu-
nikabideen bidez jakin dugunez,
Eusko Jaur-laritzak ari da ale-
gazioak aztertzen eta datozen aste-
etan Udalarekin biltzekotan da.
Udal Gobernuak tranbiaren
proiektuaren alde dago; baina
trazatua adostu nahi dugu herri-
tarren, Udalaren eta Eusko Jaur-
laritzaren artean. Horixe izan-
go da bilera horietan manten-
duko dugun jarrera.

Agurte Barruso / Alkatea

Kanpoko igerilekuak egin behar ditu Udalak?

A. N.

Agorrosingo proiektua 3
fasetan egitea planifikatu zuen
aurreko Udal Gobernuak eta
kanpoko igerilekuak 3. faseari
dagozkio. Bestalde, proiektu
guztirako aurreikusita zeukan
aurrekontua aurreko bietan
xahutu du eta Gipuzkoako Foru
Aldundiak emandako dirula-
guntza guztia ere gastatuta dago
jadanik. Udal Gobernu berria
oso kezkatuta dago Bergara

bezalako herri batek ez dauka-
lako udaran aisiialdirako kan-
poko igerilekuen aukerarik eta
bergararrok kanpora atera behar
dugulako eskaintza horren bila.
Aztertzen ari gara zein aukera
dagoen kanpoko igerilekuetako
proiektua moldatu eta lehen-
bailehen egiteko. Gure asmoa
proiektua ahalik eta baliaga-
rriena egitea da. Luxurik gabe-
ko aurrekontua doitu ahal iza-
teko eta berandubaino lehen ire-
ki ahal izateko kanpoko
igerilekua.

Agurte Barruso / Alkatea



Galderak jasotzeko azken eguna martxoak 5: aldizkaria@bergara.net helbidean edo udaletxe atariko postontzian. Ez da komeni 200 karaktere baino gehiagoko galderak bidaltzea. Galdera guztientzat lekurik ez bada, hurrengo zenbakirako gordeko dira.



Demokrazia txikia, Negozio handia

Orain dala urtebete baino gehiago hasi ziren AHTren lanak Araban. Gipuzkoan eta Bizkaian oraingo hilean seguruenik. Eta ezin dugu lorik hartu, erantzun egin behar dugu!

Eusko Jaurlaritzaren bete-beharrazan herriari informazioa emotea, baina ez dabe egin. Dana ezkututzen dabiz eta ez jakue interesatzen proiektuari buruzko eztabaidarik sortzea, badakitelako ez dutela inolako arrazoirik. Urteetan jakin dugu Angiozartik pasatuko zela baina oraindik ez dakigu zelako eragina izango duen. Hainbat baserri arriskuan eta oraindik inor ez da jarri harremanetan. Askotan gonbidatu ditugu eztabaida publikoetan parte hartzera eta inoiz ez dira agertu. Ze informazio daukate proiektuaren alde daudenek? PNV, EA.....

Eusko Jaurlaritzaren borroka mediatiko basatia egiten dabil gure aurka. Eta horretan gogotsu laguntzen dotse Euskal Telebistak, Diario vasco eta beste komunikabide askok. Intoxikazioa baino ez darabilte guri erantzuteko. Eta intoxikazio horren aurrean, guk egin geinken gauzarik eraginkorrena informazioa emotea da.

Zoritxarrez, manifestazio batekin ez dugu hau geratuko, eta horregatik, garrantzitsua da egunero AHTren gaiaz jardutea ingurukoekin. Borroka honetan gabitzenok gizartearen inplikazioa behar dugu.

AHTk ez ditu bakarrik gure mendiak eta baserriak izorratuko, AHTk gure bizimodua eta gizarite-eredua aldatuko ditu.

Mila Elorza

Espacios para nuestros jóvenes

Quisiera compartir algunas cuestiones que creo que es bueno que las comentémos y así poder hacer algo sobre ellas. Cuando mis hijos eran pequeños les he ido acompañando en sus momentos de ocio, les he ido orientando o he jugado con ellos. A medida que han ido creciendo, los amigos han ido ocupando más espacio y cada vez van alcanzando más autonomía. Es un equilibrio entre sus "ganas de volar" y nuestras "preocupaciones", un equilibrio del que va surgiendo su forma de ser. A medida que cumplen años, las posibilidades de disfrutar de espacios públicos donde puedan reunirse, en los que puedan desarrollar sus ideas, se han ido reduciendo, hasta llegar a una edad, más o menos a partir de los 12 años, en los que no existen. Siempre han buscado sus lugares de ocio y diversión propios, alrededor del cine, alrededor de una "sala de juegos", donde podían juntarse chavales-as de edades distintas y de todo el pueblo, donde se relacionaban y surgían ideas, surgía parte de "la vida del pueblo".

Las opciones actuales son de consumo individual o en grupos cerrados, en la propia casa o en un local alquilado. Comparto conversaciones con otros padres y otras madres y coincidimos en que echamos de menos estos espacios.

¿Sería mucho pedir que desde el Ayuntamiento se impulsaran lugares y/o actividades como los que acabamos de comentar?

Con la esperanza de que este escrito sea una oportunidad para reflexionar y una oportunidad de cambio para mejorar.

Nati Gutierrez

Irisgarritasun arazoak Alde Zaharrea

Bergaran herritar guztiok eroso bizi ahal izateko aldaketa ugari eman behar direla uste dut. Alde Zaharreko kale batzuetan Barrenkalen edo Masterrekan, esaterako, ezinezkoa da gurgildun aulkian ibiltzea. Alde batetik espaloairen zabalerak ez du ematen gurgildun aulkiekin ibili ahal izateko. Bestetik gurgildun aulkiekin ibili daitekeen espaloien egoera ere oso txarra da. Ikusi besterik ez dago Gaspar aurreko espaloitik bidera jaisteko aldapatoan dagoen koska. Ez da bakarrik gurgildun aulkiekin dabilzatenek arazoak dituztela, ez, mugikortasun arazoak dituztenek edo adineko pertsonen ere arazoak dituzte Bergarako Alde Zaharrea ibiltzeko. Gainera, Masterrekan gertatzen den moduan etxe berriak egiten ari dira eta espaloiak egokitzeko orduan ez dabilzta kontutan hartzen mugikortasun arazoak dituztenen beharrak. Badakit ez dela erraza egun batetik bestera gauzak aldatzea, baina badira arazo batzuk obra txiki batekin konpondu daitezkeenak eta, guri muga txikiak pentsatzen zaizkigunak, mugikortasun arazoak dituztenentzat kalera irtezea edo ez suposa dezake. Besterik gabe eskatuko nuke behin-

goz gutxitu fisikoen oinarriko eskubideak betetzea eta Bergarako kaleetan egin beharreko egokitze lanak egitea.

Ana Elkoroberezibar

Eskerrik asko, guztioi!

Aurten Bergarako Udal Musika Bandak 175. urteurrena ospatu du. Urteurrena herritarrekin ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta ditugu. Ekitaldi garrantzitsuenak bi izan dira: Udal Musika Bandaren historia jasotzen duen liburuaren aurkezpena, Juan Luis Bikuñak idatzia eta CD/DVD-a. Azken horrek Miguel González Bastidaren 6 lan eta bere seme Alfredo González Chirilaqueren "1832" lana (Udal Musika Bandaren sorrerako urtea) jasotzen ditu.

Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut Udal Musika Bandaren izenean urteurren hau posible egin duten guztiei eskerrak emateko, bereziki eskerrak eman nahi genieke lehengo eta oraingo Udal ordezkariari, hasieratik laguntza handia eman digutelako. Ez nituzke alde batera utzi nahi, bai ekitaldietan eta baita urteurrena aurrera ateratzen lagundu diguten herritarrak. Udal Musika Bandarekin kolaboratu duten elkarteetara ere eskerrak asko, Udal Musika Bandaren osasun onak jarrai dezala urte askotan. Guk jarraituko dugu musikaz bazterrak alaitzen.

Mireia Larrañaga /
Musika bandako kidea



ELKARTEEN TXOKOA

GURE AMETSA ELKARTEA

La inagotable actividad organizativa,
seña de identidad de Gure Ametsa elkarte

Gure Ametsa elkarteko ataria eta jantokia.

2008an ekimen
gehiago

Hasi berri den urtean ekimen ugari antolatuko ditu Gure Ametsak. Patata lehia-keta eta Napar Feria errepikatuko dituzte, baina gainera beste ekitaldi ugari antolatzeko asmoa badute Gure Ametsakoek. Aurtengo arrakasta ikusirik hitzaldiak eta ikastaroak ere ez dira faltako San Antonioko elkarte gastronomikoan. Bertako bazkideek gogorazten dutenez; "Horrelako ekitaldiekin herriari bizia eman nahi diogu. Bergarako Udalak ekitaldiak bultzatu behar ditu eta elkar-teok bat egin behar dugu haiekin". Ideia horri erantzungo diote aurtengoan ere Gure Ametsakoek.

En sus 35 años de historia la sociedad Gure Ametsa elkarte de San Antonio se ha convertido en uno de los mayores impulsores culturales y deportivos de Bergara. El año 2007 ha sido ejemplo de su inagotable actividad organizativa.

Los ya clásicos concursos de belenes portátiles y postales navideñas, la exitosa Napar Feria o feria de productos tradicionales navarros, la feria de la patata alavesa junto con el concurso de patatas en salsa verde, el concurso de pinchos, y otras tantas charlas, cursillos y actividades son la carta de presentación de Gure Ametsa elkarte. En 2007 han sido muchas las actividades que han organizado y de las que el barrio de San Antonio y el pueblo de Bergara se han beneficiado.

Nadie duda ya de que entre todas la sociedades de Bergara la de Gure Ametsa es la más activa y la más comprometida con el pueblo. Organiza actividades para niños, jóvenes, personas mayores y para todo el barrio y el pueblo en general. Gure Ametsa es para muchos un referente en la organización de actos en Bergara.

FUNDACIÓN EN 1973

Nació en 1973 en San Antonio, en el mismo lugar donde está en la actualidad. Con algo más de 50 socios y algún que otro jubilado, Gure Ametsa se ha hecho adulta de la mejor manera posible, tomando parte en la vida cultural y deportiva de Bergara. De entre sus socios, también los hay populares como el ex-periodista de ETB Juan Luis Bikuña y el ex-jugador de la Real

Nació en 1973 en San Antonio en el mismo lugar donde está en la actualidad. Hoy día cuenta con 50 socios y algún que otro jubilado

Sociedad Agustin Aranzabal "Gaztelu", pero los principales usuarios de Gure Ametsa son los vecinos/as de San Antonio.

CARLOS ARGÍÑANO E IÑAKI BADIOLA

Además de las actividades que la sociedad ha organizado este año, también ha habido char-

las como la que ofreció el presidente de la Real Sociedad Iñaki Badiola, cuando todavía era candidato y estaba en campaña electoral. Pero además se han organizado cursillos de cocina para los jóvenes cocineros/as de Bergara o una cata de vinos que ofrecieron los catadores que trabajan para el televisivo Carlos Argiñano. Todo un avance de actividades que ha contado con la participación y el seguimiento de muchas personas de Bergara.

El concurso de pinchos también fue una de las actividades que contó con una fenomenal aceptación. Tomaron parte una veintena de bares y el primer premio fue para el Bar Sirimiri. Con todo ello, Gure Ametsa Elkarte ha terminado un año exitoso que ha contado con el reconocimiento de los bergarreses/as.



ARITZETAKO SAN MIGEL

Aritzetako San Migel da historian zehar aipatzen den Bergarako lehen tokia

Bergara izena historian zehar lehen aldiz 1050eko dokumentu batean agertzen da idatzirik. Oraindik ez zegoen herri moduan sortuta, baina ordu-rako Aritzetako San Migel monasteriotik ez oso urrun baziren biztanle batzuk.

1050eko dokumentu batean aipatzen da Santxo izeneko jaun batek, bere jabegokoak ziren lur eta sagarrondoak eman edo oparitu zizkiola San Juan de la Peñako monasteriari. Aipatutako lur eta sagarrondoak Bergara izeneko lurraldean, San Migel Aritzetako basilizan zeuden: *“haec est cartula donationis, quam possui ego Sancius, frater de domna Ziana, ad Sancti Ioannis in mea terra, quae dicitur Vergara, in monasterio quod vocatur Ariceta, id est, Sancti Michaeli, terras et manzanas bonos...”* adierazten zen garai hartako latinez idatzitako agiri batean.

DOHAINTZA HUESCAKO SAN JUAN DE LA PEÑARI

Dohaintza egin zeneko urtean Gipuzkoa Nafarroako erreinua-ren kide zen eta Huescan dagoen San Juan de la Peñako monastergia ere errege nafarren menpe zegoen, Garcia Sanchez III. ena Najerakoa zelarik Nafarroako errege. Gipuzkoa, berriz, 1025ean aipatzen da lehen aldiz idatzitako dokumentu batean.

Bergarari buruzko historian hurrengo aipamena irakurtzeko Gaztelako Alfontso VIII. enak 1200. enean Gipuzkoako lurrak Nafarroako Erresumari indarrez kendu zizkionera arte itxaron beharko dugu. Izan ere errege gaztelarrak bereganatutako gazteluen artean Elosun zegoen gaztelu bat aipatzen da, berau 1457an Enrike IV. enak suntsitu zuen.



Aritzetako San Migeleko basilizako ataria.



1200. urtean Gaztelako Alfontso VIII. enak Elosun, San Andres elizaren ondoan, zegoen gaztelu bat indarrez bereganatu zuen. Gaztelu hori 1457an suntsitu zuten

BERGARAKO HIRIBILDUA 1268AN SORTU ZEN

Bergara hiriasortu aurretik Deba ibaiak banatutako bi elizen inguruan kokatzen ziren bi biztanle gune; Ariznoako San Pedro bata eta Oxirondoko Santa Marina bestea.

Bergara hiribildu moduan 1268an sortu zuen Gaztelako Alfontso X. enak Ariznoako lurretan “Villanueva de Bergara” izenarekin eta Hiribildu agiria Gasteizko Foruan oinarriturik eman zion.

DATO HISTÓRICO

Primera mención de Bergara en el 1050

La primera vez que se tiene constancia del nombre de Bergara es en un documento datado en el año 1050, donde un señor llamado Sancho dona unas tierras y manzanas, que poseía en el monasterio de San Miguel de Ariceta situado en unas tierras llamadas Vergara, al monasterio de San Juan de la Peña. Posteriormente en 1200 se nombra un castillo situado en Elosua el cual fue conquistado por el rey castellano Alfonso VIII. Finalmente en 1268 el rey de Castilla Alfonso X le concede la Carta Puebla a Bergara y se funda “Villanueva de Bergara”.



* Gehigarria PARTE-HARTZEA

HERRITARREI ATEAK IREKI

/ BERGARAKO UDALAREN KONPROMISOA /



Herritarrei irekitzeko asmoa du Bergarako Udalak eta batzordeetan parte hartzeko dei egiten die.

Udala herritarrei irekitzea da Bergarako egungo Udal Gobernuaren eta alkatezaren asmorik garrantzitsuenak. Konpromisoa hauteskundeetan hartu zuten eta orain hitza betetzeko garaia iritsi da. Horretarako ekimen bat jarriko da abian eta egitasmo horren helburu nagusia izango da parte hartze hori bermatzea eta bultzatzea.

Bergarako Udal Aldizkari berriaren orri eta lerro hauek aprobetxatu nahi ditu Udalak, bere funtzionamendua ezagutzera emateko eta aldi berean parte hartzeko deia luzatzeko. Herritarrek batzordeetan parte hartu nahi izanez gero, atek irekita dituzte, eta eskaera orria bete besterik ez dute egin behar. Udaleko atariko postontzian jasoko dira eskaera guztiak.

Parte hartzeko udal-funtzionamendua zein den jakitea ezinbestekoa da.

El Ayuntamiento de Bergara quiere abrir sus puertas a los ciudadanos e invitarles a que tomen parte en las diferentes comisiones.

Crear un Ayuntamiento más participativo es uno de los principales objetivos del actual Gobierno Municipal de Bergara. El compromiso lo adquirió en las pasadas elecciones municipales y ha llegado la hora de cumplir su palabra. Con el objetivo de impulsar y garantizar la participación ciudadana en el Ayuntamiento se han puesto en marcha una serie de medidas e iniciativas.

La corporación quiere aprovechar esta nueva revista municipal para dar a conocer el funcionamiento interno del Ayuntamiento y para hacer un llamamiento a todos y todas los bergarés para que tomen parte en las decisiones municipales. Las puertas del Ayuntamiento están abiertas y para tomar parte, simplemente deben rellenar la hoja de inscripción e introducirla en la urna sita en la entrada del Ayuntamiento.



ABRIR LAS PUERTAS A LOS CIUDADAN@S

/ COMPROMISO DEL ACTUAL GOBIERNO MUNICIPAL /



ZEIN DA UDALAREN EGITURA?

¿COMO FUNCIONA EL AYUNTAMIENTO?

Udala teknikoki zerbitzuetan antolatzen da. Egitura politikoak eta zerbitzuek harreman zuzena eta estua dute. Egitura politikoetan erabakitzen baita zerbitzuen egin-beharra eta norabidea.

La organización técnica del Ayuntamiento se estructura por servicios, que son los departamentos que atienden a los ciudadanos. La estructura política y los servicios están estrechamente ligados. Ya que son los políticos los que definen las tareas y funciones de los servicios.

1

Osoko bilkurak:

Bergarako korporazioko 17 zinegotziek osatua eta alkattea buru duena.

• OHIKOAK:

Hilean behin egiten dira, hileko azken astelehenean, 19:30ean. Herriari irekiak izaten dira eta herritarrak hitza eska dezakete eta iritziak edo kezkek korporazioari helarazi. Ahal izanez gero, aurretik eta idatziz hitza eska ztea gomendatzen da.

• EZ-OHIKOAK:

Gairen batek horrela eskatzen duenean egiten dira. Egin baino bi egun lehenago konbokatuta eta beti 19:00etan egiten dira. Herriari irekiak dira eta gai zerrenda itxia izaten dute. Ahal izanez gero, aurretik eta idatziz hitza eska ztea gomendatzen da.

Plenos municipales:

La Corporación municipal de Bergara está compuesta por 17 concejales y presidida por la alcaldesa.

• ORDINARIOS:

Se celebra el último lunes de cada mes a las 19:30h. Los plenos son abiertos al público y los ciudadanos/as tienen posibilidad de pedir la palabra y que la corporación les escuche. Eso sí, se recomienda hacer la petición con antelación y por escrito.

• EXTRAORDINARIOS:

Se celebran cuando algún tema así lo requiere. Se convocan siempre con dos días de antelación y se celebran a las 19:00h. Estos plenos también son abiertos al público y tienen un orden del día cerrado. Si los ciudadanos quieren tomar la palabra se recomienda que lo hagan con antelación y por escrito.

2

Gobernu Batzordea:

Udal Gobernuaren organoa da. Alkateta da buru eta 5 zinegotzik dute botoa emateko eskubidea. Gaur egun EAE-ANVko 3 zinegotzik eta Aralarreko beste 2k osatzen dute organoa. Gainerako alderdi politikoetako ordezkariak Gobernu batzordean parte hartzeko aukera dute eta iritzia eman dezakete baina ez botoa.

Comisión de Gobierno:

Es el órgano del Gobierno Municipal. Lo preside la alcaldesa y cinco concejales tienen derecho a voto. En la actualidad esos votos están en manos de 3 concejales de EAE-ANV y 2 de Aralar. A su vez, el resto de partidos políticos con representación municipal pueden tomar parte en las comisiones pero no tienen derecho a voto.





3

Batzorde informatiboak:

Informatiboak dira eta erabaki-ahalmenik ez dute. Beraien egitekoa da gaiak aztertzea eta alkatetzari, Gobernu batzordeari eta osoko bilkurari proposamenak helaraztea. Oraingoz, batzorde guztietan daude alderdi politikoetako ordezkariak eta bateren batean herritarrak.

Gaur egungo batzorde informatiboak hauek dira:

- Euskara
- Gobernazioa, obrak eta zerbitzuak
- Hezkuntza
- Ingurumena
- Kirola
- Turismoa, ondare historiko-artistikoa eta informatika
- Osasuna, enplegua eta gizarte gaiak
- Hazienda
- Obra eta hirigintza
- Jarduerak, kultura taldeak eta jaiak
- Baserri auzoak
- Gazteria

Comisiones informativas:

Son meramente informativas y no tienen poder de decisión. Su función se centra en examinar los temas y hacer propuestas tanto a la alcaldía, como a la comisión de Gobierno o al Pleno Municipal. Hoy por hoy, en las comisiones suelen tomar parte los políticos y rara vez algún ciudadano.

En la actualidad estas son las comisiones informativas:

- Euskera
- Gobernación, obras y servicios
- Educación
- Medioambiente
- Deporte
- Turismo, patrimonio histórico-artístico e informática
- Salud, empleo y bienestar social
- Hacienda
- Obras y urbanismo
- Actividades, grupos culturales y fiestas
- Barrios rurales
- Juventud



Udal batzordeetan parte hartzeko interesa izanez gero, bete fitxa hau eta eraman Udalera:

Si estás interesad@ en participar en alguna de las comisiones, rellena la ficha e introdúcela en la urna ubicada en el ayuntamiento

- Honako batzorde honetan hartuko nuke parte / Quiero participar en esta Comisión:

- Izen-abizenak / Nombre y apellidos: _____

- Helbidea / Dirección: _____

- Telefonoa /Teléfono: _____

- Bestelako iradokizunak / Otras sugerencias: _____



HERRITARRAK BATZORDE HORIETAN INTEGRATZEA NAHI DU UDALAK

Batzordeak ireki eta herritarrek parte har dezatela, hori da Udalaren nahia eta helburua.

Honako hauek dira batzordeetan parte hartzeko oinarriak:

- Batzordeko kide iraunkorra izan nahi duzula adierazi.
- Batzordeetako bileretara maiztasunez joatea.
- Aktak eta gai-zerrendak etxean jasoko dituzte herritarrek. Beraz, nominala izango da eta zenbait datu eman beharko dizkio herritarrek Udalari.

EL AYUNTAMIENTO QUIERE INTEGRAR A LOS CIUDADANOS EN LAS COMISIONES INFORMATIVAS

Abrir las comisiones y que los ciudadanos tomen parte en la vida municipal. Ese es el deseo del Ayuntamiento de Bergara.

Para poder participar en las comisiones es imprescindible:

- Expresar tu intención de ser miembro permanente de alguna comisión.
- Acudir con regularidad a las reuniones de la comisión.
- Los ciudadanos/as recibirán las actas en casa. Por lo tanto la participación será nominal y el Ayuntamiento deberá disponer de algunos datos de los interesados.



ATEAK IREKITA DITUZU.

ZURE ZAIN
GAUDE
TE ESPERAMOS.



HIRIGINTZA

PLAN OROKORRA

Urtarrilean jarri dute martxan Plangintzako Aholku batzordea

Urtarrilaren 8an egin zuen aurreneko bilera hirigintza alorreko Udal Plangintzako Aholku batzordeak.

Legegintzaldi honetan hirigintza-planak egitea, bideratzea eta proposamenen gainean adostasun soziala lortzea da Udal Plangintzako Aholku Batzordearen egiteko nagusia.

Bergarako Plan Orokorrak badu behin-behineko onarpena eta hasierako proposamenaren gainean hainbat helegite aurkeztu dituzte herritarrek. Aholku Batzordearen egitekoa alegazio horiek aztertu eta horien inguruko iritzia ematea izango da, ondoren Udalak erabakia har dezan.



Plangintzako Aholku batzordearen bilera.

Bergarako elkarte batek, Udalean ordezkariarik ez duten Bergarako alderdi politikoek, Bergaran ordezkariak sindikal handiena duten 3 sindikatuak, EHNE eta ENBA nekazaritza sindikatuak, bi auzo-alkatek eta herriko enpresa-alorra ordezkatu duten bi enpresarik.

Aholku Batzorde horretan askotariko iritzia jaso nahi ditu Bergarako Udal Gobernuak.

PARTAIDEAK

Aholku Batzordea honako hauek osatzen dute: Alkateak, Ingurumeneko Batzordeburuak, Obra eta Hirigintza Batzordeko zinegotziak (udaleko alderdi guztiak ordezkaturata), Agenda 21eko foroan parte hartzen duen erakunde batek, ingurumena defendatzea eta babestea helburu duen

DOMINGO IRALA

Domingo Iralaren urbanizazio lanak oraingo hilean ekin diete



Domingo Irala urbanizatzeko lanak hilabete honetan hasi ditu Udalak. Hasiera batean urrian hastekoak baziren ere, bertako dendarien eskariz urtarrilerara arte atzeratu da obra hasiera.

BI FASETAN

Kalearen urbanizazio lanak 3 fasetan aurreikusi ziren hasiera batean; baina Eusko jaurlaritzak Irizar etxeko lorategia historiko gisa izendatu duela aintzat hartuta, hirugarren fasea ez da burutuko. Aurten Udalak lehengo faseari ekin dio. Fase honek Domingo irala kalearen urbanizazio lanak hartzen ditu, Gaspar deituriko izkinan hasi eta Usoa tabernaraino doan zatian.

Bigarren faseak Usoa tabernatik plazara doan eremua hartzen du eta zati hau aurrerago exekutatzeko dago planifikatuta.

LABURRAK

San Pedro kaleko urbanizazio lanak egingo dituzte 2008an

Bergarako Udalak 2008an egin nahi ditu San Pedro kalea berriro urbanizatzeko lanak. Horretarako eta Bedelkar elkartearekin elkarlanean PERCO izeneko programan sartu da eta dirulaguntzak eskatu ditu. Oraindik planifikatu gabe dago obrak noiz hasiko diren.

Urte honetan egingo dira Cristo Obreroko lanak

Cristo Obreroko eremua urbanizatzeko lanen kostua partekatuko dute Bergarako Udalak eta plazako bizilagunek. Lur-azpian egingo diren lanak bizilagunek ordainduko dituzte eta plazaren urbanizazioa Udalak hartuko du bere gain.

Florentziako itunean oinarritutako lanak Arrizuriagan

Arrizuriaga parkean egin beharreko berreskuratze lanak Florentziako itunean jasotako printzipioak eta irizpideak oinarri hartuta egingo dira. Helburua parkea jendaurrera irekitzea da baina betiere bere balio historikoa mantenduz eta horretara bideratzen da Florentziako ituna.

Mugertzako gaina konponduko dute

Mugertza gainean dagoen aparkalekua konponduko du Bergarako Udalak. Erreka ondoan segurtasuneko neurriak jartzea da Udalaren lehentasuna eta, ondoren hasiko dira aparkalekuaren lurzorua konpontzen. Segurtasuneko neurriak urte hasieran jarriko dituzte.



KIROLA/GAZTERIA

GAZTE KONTSEILUA

Gazte Kontseilua osatu nahi dute herriko koadriletako ordezkariekin batera



Udalak herriko gaztetxoek beharrak eta nahiak jaso eta beraiekin elkarlanean aritu nahi du. Horretarako, gazte kontseilua osatzeko asmoa dauka. Herriko gaztetxoek koadriletako ordezkariak eta Udaleko ordezkariak

osatuko dute Gazte Kontseilua, eta gaztetxoek dituzten kezka eta beharrak jaso eta bideratzen saiatuko dira bertan.

JARRERA EZIN HOBEA

Bergarako gaztetxoek herrigintzarako jarrera ezin hobea erakutsi dute eta aurtengo Gabonetako ekitaldian parte hartzeko prest azaldu dira. Orain arte parte hartze hori diru-truk egiten zuten eta aurten herrigintzaren mesedetan jarduteko prest azaldu dira 120 gaztetxo.

Hori guztia aintzat hartuta, Udalak baldintza oso egokiak ikusi ditu gaztetxo horiekin lan egiteko. Era berean, Udalak uste du herrian kezka nahikoa dagoela adin tarte horretako gaztetxoek (12-18) aisialdiko eskaintzaren gainean, eta beraiekin lan egitea iruditu zaio egokiena Udala Gobernuari.

KIROLAK

Hiru abonamendu mota erabiltzaileen beharretara egokitzeko

Agorrosin kirolguneko eta igerilekuko aurtengo kirolabonamenduek aldatu izango dituzte. Horrela erabiltzaileek aukeratu ahal izango dute euren gustukoak dituzten ekintzen araberako abonamenduak.

Udal Gobernuak erabaki du aurtengo tasetan Agorrosineko eremuari dagokionez fitness, igerileku eta spa erabiltzaileentzat goerarik ez ezartzea. Izan ere, aurreko urteetako tasak nahikoa garesti zirela uste du Udalak eta bergararren artean kirola sustatu nahi duenez, prezioak mantentzea eta zenbait kasutan jaisteak erabaki du.

Ikastaroak dagokionez aurten sei euroko igoera ezarri du Udalak, izan ere ikastaroak eta jarduerak Udalar



sortzen zizkieten gastuak eta horren truke sortzen ziren sarrerak ez ziren batera orekatuak. Ekintza horiek mantentzeko prezioa igotzea erabaki du Udalak.

SUBVENCIONES

La Comisión de Deportes elaborará una nueva normativa para el reparto de subvenciones

La Comisión de Deportes del Ayuntamiento de Bergara se reunió el pasado mes de diciembre con los diferentes clubes deportivos para analizar los cambios provisionales realizados en las condiciones para el reparto de las ayudas económicas municipales a los clubes deportivos.

Asimismo, las entidades deportivas han presentado sus solicitudes para recibir las ayudas económicas correspondientes al año 2007 que serán analizadas durante este mes en la Comisión de Deportes municipal que se reúne todos los miércoles a partir de las 18:30 en las instalaciones de Agorrosin.

Además, para el primer trimestre del año 2008 la Comisión de Deportes espera aprobar las condiciones definitivas para el reparto de las subvenciones a los clubes. Para ello desde el Ayuntamiento se ve indispensable la colaboración de los clubes, con el fin de impulsar el deporte en Bergara.

Para poder actualizar las ayudas municipales a las necesidades de los clubes la Comisión de Deportes se muestra abierta a las aportaciones de las entidades deportivas bergararras, teniendo en cuenta que dicha comisión se ha fijado como objetivos prioritarios la promoción del deporte entre los más jóvenes y las mujeres.

KIROLA/GAZTERIA



KULTURA

ZABALOTEGI ARETOA

Zabalotegi aretoa irailean irekiko dute

Iazko urrian hasi zituzten Zabalotegi aretoa konpontzeko lanak, eta dirudienez irailerako dena prest egongo da ateak ireki eta kultura eskaintza berria egiteko.

EZAUGARRI TEKNIKOAK

Zabalotegi areto zaharberriaren ezaugarriak honako hauek izango dira: Bi ate nagusi izango ditu eta erdian takila txiki bat, ezkerreko sarreraren alboan elbarrituentzat egokitutako komun bat egongo da eta eskuineko sarreraren eskuinaldean beste bi komun, gizonetako eta emakumeetako.

Beheko solairuan, aretoaren ezker aldean instalazioen gela egongo da eta baita kamerinoak ere. Eszenatokia 73,45 metro koadrokoa izango da eta ekitaldietarako aretoak 120 jarku izango ditu.

Proiektzio gela, eszenatokiaren parez pare egongo dena lehenengo solairuan eta bulego bat ere egongo da, bilerak eta gainerako batzarrak egiteko. Biltegia eta instalazioen gela ere lehenengo solairu horretan izango dira.



FORMATU TXIKIKO EKINTZAK ANTOLATZEKO APROPOSUA

Bestalde eta bertan antolatuko diren ekitaldiei dagokienez formatu txikiko ekintzak burutu ahalko dira, aretoak berak eskaintzen dituen neurrikoak.

Formatu txikiko ekintza ezberdinak antolatzea da Bergarako Udalen Kultura Sailaren helburua, bergararrak asebeteko dituen ekintza ezberdinez osatua. Hau da; antzerkiak, ikus-entzuneak, hitzaldiak,...

Kultura batzordetik bertatik egingo dira proposamenak eta ondoren lanketa eta hausnarketa egin beharko da.

KULTURA GIDA

Hilero argitaratuko da kultura gida poltsikoko formatuan



Bergarako Udalak asmo berria du aurtengo urterako. Bergaran antolatuko diren kultura ekitaldi, erakusketa eta gainerako ekimenen gaineko kultura egitaraua argitaratzeko asmoa du hilero-hilero.

Kultura egitarau horiek poltsiko-

ko formatuan aterako dira, eta bertan bai Bergarako Udalak zein edozein kultura elkarte edo eragilek antolatutako ekintzak argitaratuko dira antolatzaileek nahi izanez gero.

Ekimenen antolatzaileek kultura gidan beraien ekimena azaltzeko modu ezberdinak izango dituzte: Kultura etxera gerturatuta, telefonoz deituta 943779158 edo e-posta bidez kultura@bergara.net helbidera mezua bidalita.

Bestalde eta antolakuntzak horrela eskatzen duelako, hilabete bakoitzeko 10. eguna izango da azken eguna hurrengo hileko egitarauaren mezua edo proposamena sartzeko.

LABURRAK

Ikus-entzunezko emanaldiak astebururo Agorrosinen

Aurreko urtean bezala, aurten ere, asteburuetan eta martxoak 16 arte, ikus-entzunezko emanaldiak egingo dira Agorrosinen. Emanaldien ordutegia honakoa izango da: 16:30ean eta 19:30ean larunbatetan eta igandeetan.

'Hondakinak amesgaiztorik ez!' erakusketa kultura etxean

Urtarrilaren 21era bitartean erakusketa dago ikusgai Kultura Etxean. Mota guztietako publikoari zuzendua dago eta bost atal ditu. Debagoieneko Mankomunitateak bultzatutako erakusketa da eta ordutegia honako hau: egunero 18:00etatik 21:00etara.

Aroztegi aretoko 2008ko egitaraua prest dago

Aroztegi Aretoko egitaraua antolatzekeo ardura duen batzordeak jaso ditu 2008 urterako proposamenak eta dagoeneko prest du egitaraua. Urtarrilaren 30ean hasiko da erakusketen denboraldia eta 2009ko urtarrilera arte izango dira erakusketak ikusgai. Askotariko eskaintza izango du oraingo urtean Aroztegi aretoak.

Mundumira festa Bergaran egingo dute aurten

Debagoieneko Mankomunitateko Kultura eta Turismo Sailaren eskutik Mundumira jaialdiaren 4. edizioa Bergaran ospatuko da aurten. Egitaraua oraindik zehaztu gabe badago ere, jakina da ekainaren 6tik 8ra egingo dela eta ekintzaz beterik etorriko dela. Munduko zapora eta ekintza ugari ikusi ahal izango dira Bergarako kaleetako eszenatoki erraldoian.



MENDEKOTASUN LEGEA

Mendekotasun Lege berria onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak

Mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko prestazio ekonomikoak arautzeko, 133/2007 FORU DEKRETUA onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Diru laguntzen bidez, mendeko pertsona bat zaintzeak sortutako gastuei aurre egin nahi zaie. Hiru diru-laguntza mota daude eta eskuratu ahal izateko, besteak beste, mendekotasun maila konkretu bat eduki behar da. Mendekotasun balorazioaren eskariak udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan egin behar dira.

Hiru laguntza mota daude:

- Zerbitzuari lotutakoak: Mendeko pertsonarentzat laguntza eta zaintza zerbitzu bat (eguneko zentroa edo egoitza) eskuratzera zuzendutako laguntzak. Eguneko zentroetan edo egoitzetan lekurik ez dutenentzat, zuzenean zerbitzu pribatu bat kontratatzeko dirulaguntza da.

- Eskatzailearen familia inguruko eta profesionalak ez diren zain-tzaileentzako laguntzak.

- Mendekotasun handiko pertsonen eguneroko bizitzan laguntzaile profesional bat kontratazeko diru laguntzak.

Prestazioa	Mendekotasun Gradu eta Maila	Gehieneko diru kopurua
Zerbitzuari lotuta	II. Gradua, 2. maila	450 /hileko
	III. Gradua, 1. maila	608,98 /hileko
	III. Gradua, 2. maila	811,98 /hileko
Familia ingurunea	II. Gradua, 2. maila	328,36 /hileko
	III. Gradua, 1. maila	405,99 /hileko
	III. Gradua, 2. maila	506,36 /hileko
Laguntza Pertsonala	II. Gradua, 2. maila	0 /hileko
	III. Gradua, 1. maila	608,98 /hileko
	III. Gradua, 2. maila	811,98 /hileko

2.008rako onartutako diru laguntzen kopuruak.

DIRU LAGUNTZAK

Gobernuz Kanpoko Erakundeentzat diru laguntzak onartu ditu Udalak

Bergarako Udalak pasa den hilabetean onartu zituen 2007ko deialdiari dagozkion Gobernuz Kanpoko Erakundeei eman beharreko diru laguntzak. Egoitza nagusia Gipuzkoan duten Gobernuz Kanpoko Erakundeei zuzenduta daude, eta diru laguntza horien helburua da 2008an zehar bi jarduerara mota bultzatzea.

SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK

Garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak hobetzeko jarduerak burutzea da proiektu horien asmoa

eta, era berean, Bergarako herritarren artean herrialde horien egoera eza-gutzera ematea, informazio eta sentsibilizazio kanpainen bitartez.

Zortzi erakunderi banatu dizkiete diru laguntzak aurtengo deialdian. Horietako batzuek, sentsibilizazio kanpainak jarriko dituzte martxan Sahara eta Pakistaneko egoera azaltzeko. Garapen proiektuak abian jaritzeko diru laguntzak, berriz, Nikaragua, Salvador, Bolivia, Saharar Errepublikak, Pakistan, Kamerun eta Guinea Ekuatorialera bideratuko dituzte.

LABURRAK

Babes etxea laster Bergaran

Tamalez genero indarkeria sarritan agertzen da komunikabideetan. Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik kasu horiek bideratzeko laster baliabide berri bat jarriko dute abian, babes etxea hain justu ere. Behin behineko egonaldiak egitera dago zuzenduta babes etxea, eta Udalarena den etxebizitza bat erabiliko da horretarako.

Gurasoentzat orientazio psikologikorako zerbitzuak harrera ona

Irailean abian jarritako gurasoentzako laguntza psikologikorako zerbitzuak harrera ona izan du Bergarako gurasoen artean, eta kontsulta dezente egin dira dagoeneko. Gogoan eduki gai honekiko edozein zalantza edo arazo izanez gero, Etxadi taldeko psikologoaren laguntza eskuragarri dutela gurasoek.

Sahararen aldeko laugarren karabana

Urtarrila bitartean Saharar herriarekiko euskal elkartasun taldeek Sahararen aldeko IV. euskal karabana antolatu dute. Aurten arrosa, dilistak, azukrea, hegaluzea eta konpresak batu nahi dira Algeriako kanpalekuetara bidaltzeko. Bergarako Udalak ere ekimen horri sostengua eman nahi izan dio eta bergarar guztiei dei egiten die euren laguntza herri sahararrari bideratzeko.

GIZARTEA



BASERRI AUZOAK

BERPIZTU PROGRAMA

Berpiztu programa abian Ubera, Angiozar eta Elosun

Bergarako Udalaren, Deba-Garaia eta Itsasmendikoi elkarteen arteko hitzarmenaren ondorioz, herriko hiru auzotan Berpiztu programa abian jarri da. Landa eremuko hiru auzoak honako hauek dira; Elosu, Ubera eta Angiozar. Oso bestelako auzoak dira, bai biztanleen kopuruaren ikuspegitik, baita behar zein premien aldetik ere.

Berpiztu programa aipatu hiru auzoetan aurkeztu da. Auzo bakoitzera gerturatu dira Udal ordezkariak eta auzotarrekin informazio bilerak egin dituzte. Programaren helburua da auzoko beharrak identifikatu, lehentasunak markatu, adostu eta zerrendatu ondoren, dirulaguntzak lortu eta hobekuntzak egitea. Lan horretan dihardu Udal teknikariak.



Angiozar auzoa.

BATZORDEA

Baserrri auzoen batzordea herritarrei irekia



Elosu auzoa.

Baserrri auzoen batzordea osatzen dute Udalean ordezkariak duten alderdi politiko bakoitzeko ordezkari banak eta Bergarako auzo alkateak. Batzordea bi hilean behin elkartuko da, eta bertan Udalaren eta auzo-alkateen arteko informazio trukatuko da.

ESKARIAK ETA BEHARRAK

Eskariak eta beharrak aztertuko dituzte eta ahal den neurrian Udalaren betebeharrak zehaztuko dituzte batzordeak. Batzordearen gaineko informazioa jaso nahi izanez gero, jakin batzordeburua eguztenetan izaten dela udaletxean, 12:30tik 14:00etara; bulego tekniko ondoan dagoen bulegoan.

LABURRAK

Edateko ura baserrietara eramango dute

Oraingo urtean hainbat baserrri eta auzotara edateko ura eramatea aurreikusten du Udalak. Oraindik badira edateko urik ez duten landa-eremuko baserrri eta etxeak. Hori ur edangarritz hornitzea da Udalaren egitekoa.

Azoka berezien gida eskuragai

Ahalik eta informazio gehien eskaintzeko asmoarekin, baserrri auzoen azken batzordean azoka berezien gida banatu zuen Bergarako Udalak. Klean zein herriko auzo baserrietan oraingo urtean egingo diren azoka berezien informazioa jasotzen da gida horretan, eta edonork du eskuragai bulego tekniko sarreran.

Berpiztu programako teknikaria Elosun

Landa inguruneke auzoak berpizteko eta biziberritzeko asmoarekin lanean dihardu Bergarako Udala Berpiztu programaren bitartez. Lan horretan dihardu Itziar Arkonada teknikariak eta oraingo hilean Elosun izango da. Ondoren Ubera eta Angiozar auzoak bisitatuko ditu.

Neguko plana abian

Elur ekaitzei aurre egiteko neguko plana prestatzen ari da Bergarako Udala. Baserrri auzoetan gatza banatu eta elur makinak lana koordinatzea da Udalaren eginbeharra. Hori guztia prestatzeko baserrri auzoetako alkateekin plana prestatzen ari da.

Iberdrolaren sare berria

Iberdrolak sare elektriko berria bota behar du Bolintxo ingurutik Arrasateraino. Hori dela eta, Bergarako Udala herriko auzo alkateekin harremanetan jarri da, jakitera emateko zeintzuk izango diren lur afektatuak.



UDALBATZARRAK

Bergarako Udal osoko bilkuretan azken hilabeteotan hartu diren erabaki garrantzitsuenen zerrenda.

2007KO EKAINAREN 16KO UDALBATZARRA

- **KARGUHARTZEAK** Zinegotziek kargua hartu eta alkateta hautatu zuten. Hautagaiak Agurne Barruso eta German Muruamendiaraz izan ziren. Agurnek 9 boto jaso zituen, Germanek 6. Agurne izendatu zuten Bergarako alkate.

2007KO UZTAILAREN 12KO UDALBATZARRA

- **OSOKO BILKUREN MAIZTASUNA** Osoko bilkurak hilean behin egitea erabaki zen.

- **BATZORDE INFORMATZAILEEN GAINEKO ERABAKIA** Udaleko batzorde informatzaileak 11 izango zirela onartu zen osoko bilkuran: Hazienda, Gobernazioa, Hirigintza, Ingurumena, Ongizatea, Baserri Auzoak, Kultura, Ondarea eta Hezkuntza.

- **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA** Tokiko Gobernu batzordea nortzuk osatuko duten eta alkateordeak nortzuk izango diren erabaki zen. Tokiko gobernu Batzordean Agurne Barruso, Enara Minguez, Aitor Goiti, Maite Guridi, Mikel Etzaniz eta Martin Etxebarria izango dira. Gainera, zinegotzi guztiak daude gonbidatuta.

- **DEDIKAZIOAK** Enara Minguez zinegotzia eta kultura arduraduna, eta Agurne Barruso alkatea liberatzea onartu zen eta beraien soldatak ere onartu ziren. Bien artean aurreko alkateak berak bakarrik kobratzen zue-na kobratuko dute.

- **UDAL AKONFESIONAL IZENDAPENA** Bergarako Udala akonfesionala izatea onartu zen. Inongo erlijioarekin bat ez egitea erabaki zen eta pentsaera guztien errespetuan oinarritutakoa izatea.

- **PLAN OROKORRAREN ERAKUSKETA PUBLIKOAREN LUZAPENA** Plan Orokorra jendaurrean egoteko epea beste bi hilabetez luzatzea erabaki zuen Bergarako Udala.

- **ALGODONERAKO LURSAILAREN ESLEIPENA** Algodonerako lursaila Construcciones Amenabar enpresari esleitzea erabaki zuen udalbatzarrak.

2007KO UZTAILAREN 23KO UDALBATZARRA

- **BATZORDEBURUEN IZENDAPENA** Batzorde Informatzaileetako batzordeburuak izendatu zituen Udala.

2007KO UZTAILAREN 24KO UDALBATZARRA

- **ORDAINSARIEN ONARPENA** 2007ko abenduaren 31ra arte alderdi politikoei jaso beharreko ordainsariak onartu zituen.

2007KO URRIAREN 29KO UDALBATZARRA

- **ORDENANTZA FISKALAK** 2008ko ordenantza fiskalei behin behineko onarpena eman zitzaion.

- **CRISTO OBRERO EREMUKO LANAK** Cristo Obrero-ko plaza urbanizatzeko proiektua onartu zen eta kostuak bizilagunekin banatzea erabaki zen.

- **LARRAMENDIKO INDUSTRIA EREMUKO PLANAREN ONARPENA** Larramendi industria eremuko Plan Partzialari behin betiko onarpena egin zion udalbatzarrak.

- **ATXILOKETAK SALATZEKO MOZIOAREN ONARPENA** Batasuneko mahaikideen atxiloteta salatzeke mozioa onartu zuen osoko bilkurak.

- **ERTZAINZAREN JOKAERA SALATZEKO MOZIOAREN ONARPENA** Ertzaintzak Bergaran urriaren 14an izandako jokaera salatzeke mozioa onartu zuen Udalak.

2007KO AZAROAREN 26KO UDALBATZARRA

- **ESKOLARATZE ARAZOEN GAINEKO MOZIOAREN ONARPENA** Herriko eskolaratze-arazoengatik inguruko mozioa onartu zuen udalbatzak.

2007KO ABENDUAREN 10EKO UDALBATZARRA

- **AUKERA DEMOKRATIKO GUZTIEN ALDEKO MOZIOAREN ONARPENA** Euskal Herriaren eskubideen alde, egitasmo politiko guztiei aukera demokratikoa. Herri gisa erantzuteko garai da! izeneko mozioa onartu zen.

2007KO ABENDUAREN 17KO UDALBATZARRA

- **ORDENANTZA FISKALEN ALEGAZIOEN ONARPENA** Ordenantza fiskalei aurkeztutako alegazioak onartu zituen udalbatzak.

- **HITZARMENA ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREKIN** EEErekin (Energiaren Euskal Erakundea) hitzarmena sinatzea onartu zuen Udalak zenbait plan eta programa abian jartzeko.

- **TOKIKO AGENDA 21** Tokiko Agenda 21-Lerro estrategiko eta ekintza plana onartu ziren.

- **HITZARMENA MURUA BALZOLA FUNDAZIOAREKIN** Kultur Etxea erabiltzen segitzeko aukera ematen duen hitzarmena sinatzea adostu zuen Bergarako udalbatzak Murua Balzola Fundazioarekin.

2007KO ABENDUAREN 18KO UDALBATZARRA

- **AHOLKU BATZORDEAREN ARAUDIAREN ONARPENA** Udal Plangintzako Aholku Batzordea eratzeko eta jarduteko araudia behin betiko onartu zuen udalbatzak.

UDALBATZARRAK

KULTURA AGENDA

URTARRILA > MARTXOA



> OTSAILAK 2
Pirritx eta Porrotx

> OTSAILAK 3
Txan magoa

URTARRILA

- > URTARRILAK 20, 27 / 09:45
Bergarako Udal Txistulari
Bandako kideen kalejira
/Bergarako kaleetan
- > URTARRILAK 20 / 12:30
Bergarako Udal Musika Bandaren
kontzertua
/Udal pilotalekuan

ZINE SAIOAK / Agorrosin

- > URTARRILAK 19, 20
Ratatouille
Haurrentzat, animazioa,
gaztelaniaz
- > URTARRILAK 26, 27
Piratas del Caribe en el fin del
mundo
Helduentzat, fikzioa, gaztelaniaz

ERAKUSKETAK

Aroztegi aretoa

- > EKE BERGARAKO EMAKUME
ELKARTEAREN ESKULANAK
urtarrilaren 18tik 27ra

Kultura etxea

- > HONDAKINAK, AMESGAIZTORIK
EZ!
urtarrilaren 2tik 21era
/ BEKE elkarteak antolatuta

OTSAILA

- > OTSAILAK 1
Udal Musika Bandaren eta
Bergarako Orkestra Sinfonikoaren
arastuteetako kontzertua /Udal
pilotalekuan
- > OTSAILAK 2, LARUNBATA
(ARATUSTEETAKO LARUNBATA)
• PAILAZOEN EMANALDIA
Pirritx eta Porrotx / 16:30 / 18:30
/Udal pilotalekuan
Sarrera: 4 €. Sarrerren salmenta:
Urtarrilaren 22, 23 eta 24an
Bergarako udal pilotalekuko
leihatilan, 17:00etatik 20:30era.
Pertsona bakoitzak ezingo du 6
sarrera baino gehiago hartu.
• MOZORROEN DESFILEA
The Txortains txarangak alaituta
/ 19:00 / Bergarako kaleetan
• KONTZERTUA
Bisaia eta Los del gas taldearekin
/ 23:00 / San Martin plazan

- > OTSAILAK 3, IGANDEA
• MAGIA
Txan magoaren saio magikoa
/ 17:30 / Udal pilotalekuan
Sarrera: 3 €. Sarrerren salmenta:
Kultura etxean eta udal pilotalekuko
leihatilan. Pertsona bakoitzak ezingo
du 6 sarrera baino gehiago hartu.
- > OTSAILAK 3, 10, 17, 24 / 09:45
Bergarako Udal Txistulari
Bandako kideen kalejira
/Bergarako kaleetan
- > OTSAILAK 14
Amodiozko gutunen lehiaketako
sari banaketa /Kultura etxean,
Jardun elkarteak antolatuta
- > OTSAILAK 16 / 19:00
Haurrentzako ipuin kontaketa
saioa /Aroztegi aretoan

- > OTSAILAK 21 / 19:00
Helduentzako ipuin kontaketa
saioa /Aroztegi aretoan
- > OTSAILAK 29 / 19:00
Aire airean" Joxe Ramon Agirre
Marronen ikus-entzunezko
emanaldia /Aroztegi aretoan

ZINE SAIOAK / Agorrosin

- > OTSAILAK 9, 10
Ikasgela hegalaria
Haurrak, fikzioa euskaraz
- > OTSAILAK 16, 17
Lucio
Helduak, dokumentala gaztelera
- > OTSAILAK 23, 24
Perez sagutxo
Haurrak, animazioa euskaraz

ERAKUSKETAK

Aroztegi aretoa

- > AITOR ETXEBERRIAREN
ERAKUSKETA
otsailaren 1etik 17ra
- > TROFEU MONTBARBAT
ARGAZKI LEHIAKETAKO LANEN
ERAKUSKETA
otsailaren 22tik martxoaren 2ra
- > ARATUSTEETAKO
KARTEL LEHIAKETAKO
LANEN ERAKUSKETA
otsailaren 1etik otsailaren 9ra

Kultura etxea

MARTXOA

- > MARTXOAK 1: Zuhaitz eguna
- > MARTXOAK 9 / 12:30
Bergarako Udal Musika Bandaren
kontzertua
/Udal pilotalekuan
- > MARTXOAK 15:
Erramu zapatu eguna
/ 22:30 Bertso saioa. Bertsolariak:
Andoni Egaña, Beñat
Gatzelumendi, Iker Zubeldia,

Aitor Mendiluze eta Sebastian
Lizaso.
Gaiak: Bergarako Bertso
Eskolakoek jarritakoak
/Udal pilotalekuan

ORDUTEAGIAK:

- ZINE SAIOAK / Agorrosingo ikus-entzunezko aretoa / 16:30 / 19:30
- ERAKUSKETAK / • Aroztegi aretoa / Astearretik ostiralera: 18:00-20:30 / Larunbatetan: 12:00-14:00 / 18:00-20:30 / Igandetan: 12:00-14:00
- Kultura etxea / Asteleheneretik ostiralera: 18:00-21:00 / Larunbatetan: 12:00-14:00

BERGARAKO UDALA
San Martin Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel: 943 77 91 00
Faxa 943 77 91 63



www.bergara.net